



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2018ko azaroa · 345. alea

TOKIKOM

DOLMENEN IBILBIDEA

**MONUMENTU
MEGALITIKOAK
BISTARATZEN**



PIL-PILEAN 345

2018ko azaroa

Azaleko argazkia:
Debegesa.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Seung Woo Han
 - 6 **Begira** Jaietako aletxo berezia
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Egun borobila
 - 18 **Erreportajea**
Euskaraldiko testigantzak
 - 22 **Kirola** Hamabostero hanka bero,
Jokin Muñoz, Sora, Pelota, Ixa
Rodríguez
 - 24 **Kultura** Plaentxia kantuan
 - 26 **Historia** Plaza Berriko iturria
 - 28 **Sakonean** Frank Quabena
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Eguzkiñe Aldazabal
Tximeletak eta txoria
 - 16 **Gutunak**
Bertsio Gaueko Taldea
*Inauterixetako Bertsio gabian parte
hartzeko deia*
Soraluzeko Kirol Bazkuna
Jakinarazpena
A.I. Estaziñoko ziburua
 - 16 **Hausnarketa**
Gizon izateko ereduaz
 - 17 **Zir(r)ika**
 - 17 **Puntua** Gotzon Elizburu
Detalle txikiak, problema handiak



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZECO
UDALA**

Tximeletak eta txoriak



EGUZKIÑE ALDAZABAL

Tximeletak estimu onean ditugu. Koloretsuak, udaberriaren mezulariak... pinpilinpauxa omen da euskarak oparitu digun hitzik politenetakoa. Tximeletak sentitzen ditugunean, seinale maitemindu egin garela. Emozioak dantzan, irribarretsu, lurzorutik metro batera erdi hegan joaten gara lanera. Eta inork ez digu aurpegi txarrrik jartzen tximeleten presentziak eragiten digun aparteko zorion horren aurrean.

Buruan txoriak ditugunean bueltaka, txoriburu gara. Baina txori horiek ez dute tximeleten arintasuna... pisu handiagoa dute, eta balantzan eta zalantzan jartzen dute gure arrazoa. Norbaitek esan lezake erotuta gabiltzala, burutik eginda, txoratuta (izan zitekeen txorituta).

Gaztearen txori zein tximeletek badute baina, halako grazia eta aitzakia. Pertsona helduaren txoro-haizea ez da hain erakargarria edo ulertzen erraza, ez behintzat ezpainak ardotan busti ez baditu. Pertsona helduak jakin behar du txoriak uxatzen, eta jakin badaki tximeletak sentitzea gaztetako kontua dela.

Nik ere ezagutu nuen “emakume bat, ospitaleko bankuan eserita, bere erloju zaharrari begira, irribarretsu.” Kontatu zidan ez zuela inoiz familiaren babesik ezagutu. Txikitatik lanean jarri zutela, herriko mediku batzuen etxean, zerbitzari. Hilerokoa etorri zitzaionean, ez ziola inork haren berri eman, eta demonioaren kontua zela sinistuta, ezkutuan bizi izan zituela hamaika aste gorri. Orduko Elizak dena bekatua zela sinistarazi ziola, gutiziren batean pentsatze hutsa ere bekatua zela. Eta bere pentsamenduak geldiarazteko saiakeran sufritu zuela lehenengo krisia. Gero, maitasuna zer zen ezagutu gabe esposatu zela, betiko. Jendeak esaten ziola “bizi egin behar dugu”, baina ez zuela inoiz hitz haien esanahia ulertu. Eta “txuriz jantzitako gizon batzuek esan ziotela: “ven...”

“Y ella gritó: no señor, ya lo ven, yo no estoy loca... estuve loca ayer, pero fue por amor”.

Ez dakit ba nik ez den aspirina baino hobea negua hasteaz bat jantzitako artilezko bufanda... eta ez dakit ba nik ez den hobea lotarako pilulak hartzen hasi baino lehen maitasun dosiak hartzen hastea...

Eta nik esango nieke “auzoko mutil horiei”... maitasunak, izan gazte, izan heldu, txoratu egiten gaituela... eta maitasun ezak... ere bai.

(Bitartean entzuteko: Big Member taldearen “Le llamaban loca”, Jose Luis Peralesen izen bereko abestiaren bertsioa)

PERTSONA HELDUAREN TXORO HAIZEA EZ DA HAIN ERAKARGARRIA EDO ULERTZEN ERRAZA

Seung Woo Han

UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Urrian hiru urte bete dira *Global Seoul Metal Tech* (GSMT) korear jatorriko taldeak Soraluzeke Industrias GOL bereganatu zuela. Modu horretan, euren produkzioa (estanzioa) dibertsifikatu eta europar merkatuan sartu ziren. Euren esperientziaz, lantegiaren orainaz eta geroaz berbetan izan gara Seung Woo Han-ekin, GOLeko zuzendariarekin.

Zela moldatu zara hiru urteotan? Kultura eta tradizio oso desberdinekoak gara eta denbora behar da egokitzeko. Lankideekin berba asko egiten nuen etorri berritan, elkar ondo komunikatzeko eta ulertzeko. Bertako kultura eta tradizioa ezagutzea lortu nahiko nuke.

Zerk harritu zaitu gehien? Bazkalorduek. Korean, Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) edo beste hainbat herrialdetan 12:00ak aldera bazkaltzen dute. Hemen 13:30ak aldera, 14:30ean ere bai batzuk. Eta hemen gehienendako 19:30ean edo 20:00etan afaltzea goizegi da. Korean 19:00etarako afaltzen amaitu egiten dugu. Bestela, lanean hasteko ordua antzerakoa da hemen eta Korean, baina han goizago bazkaltzen dugu. Pintxoengatik izan daitekeelakoan nago; izan ere, hemen ohikoa da gosariaren eta bazkalorduen artean zerbait jatea. Baita bazkalorduen eta afalorduen artean ere. Harritu nauen beste gauza bat da bazkalostean, siesta orduan, dendak itxi egiten dituztela.

Zertara egokitu zara ondoen? 3-4 urtez AEBtan lanean egondakoa naiz, oso antzerakoa da mendebaldeko kultura. Harremanak oso adeitsuak dira eta jendearen portaera ere bai. Horrek bertara egokitzea erraztu dit.

Zein da GOLen egoera? 2015eko uztaillean geureganatu genuen GOL. GSMT oso talde arrakastatsua da Asian, Korean, Txinan eta Asia Hego Ekialdean. Batez ere torlojuak (electronic screws) produzitzen ditugu eta automozioa ere lantzen dugu, baina gutxiago. Helburua merkatu garatua sartzea zen, European. Momentu hartan

gure taldeak arreta globalizazioan jarrita zuen eta presentzia lokala izan nahi genuen. Hori dela-eta bi lantegi ditugu, Soraluzean eta Berrizen. Errumanian ere badugu beste lantegi bat, eta Hungarian salmenta bulego bat ere bai. 2015etik hazkunde etengabea izan dugu. Hasierako langile gehienek bertan jarraitzen dute eta gehiago ere hartu ditugu. GOLek 142 langile ditu Soraluzean eta Berrizen. Bestalde, 2013an kaudimen-egoera kritikoan zegoen GOL, baina oso azkar eman genion buelta, eta egoera egonkortu genuen. 2017an 25,4 milioi eurokoa izan zen fakturazioa, 2015ean, berriz, 23,6 milioi eurokoa.

GOLek etorkizuna bermatuta du? Inork ez daki ezer etorkizunaz (barre). Baina badut amets bat. Enpresa hau denbora luzez sostengatuko dugu. Handitu nahi dugu, badugu eskarmentua Korean, Txinan... Oinarri sendoa eraikitzen ari gara. 2020 aurretik enpresa sendoa lortu nahi dut hainbat arlotan: finantzatan, teknikna, produkzioan, arlo komertzialean... Ondoren, Espainiako burtsan kotizatuko duen enpresa izatea litzateke asmoa. Langile berriak hartzearen inguruan, azken urteetan ez da oso erraza izan. Baina etorkizunean beharko ditugu. Ingurukoak eta herrikoak, batez ere, herriarekin dugun harremana sendotzeko eta indartzeko. Orain ere lanean diharduten asko herrikoak dira eta Soraluze oso ondo kokatuta dago. Cluster industrial sendoa dago inguruan, automoziorako aproposa.

Besterik gaineratu nahi duzu... Beti nago GOLi buruz pentsatzen. Hilero, astero, egunero... nola egin nezake handiagoa, konpetentzia baino hobea... Gogor saiatzen naiz eta asko laguntzen didate lankideek. Talde ederra dugu, pertsona onak, bihotz onekoak eta enpresarentzat lan egiteko gogotsu daude. GOLek arrakasta izatea nahi dut, baina ez ekonomikoki bakarrik. Langileak, bezeroak, hornitzaileak, herritarrak... denak dira GOLen parte eta enpresak arrakasta izateko denok egon behar dugu ondo, harmonia onean. Hori da ardura nagusia eta hori lortzeko bidean GSMTren laguntza izango dugu.



Jaietako ale berezia

ARGAZKIA: UBANE MADERA

TESTUA: UBANE MADERA

Herrian egun seinalaturen bat denean, mimo bereziarekin "janzten" du harategiko erakusleihoa Marimarrek. Gaztañerrekoa da azken adibidea: bidanitik arto beltza eta kalabazak ekarrita, (bat Galizatik), 60ko hamarkadako pisua atera eta "Atxolingo Itziarrek" egindako baserritarren panpinak protagonista modura ipinita osatu zuen argazkiko bodegoia. Eta hartzen duen lanari buruz hauxe esan digu: "1984an hasi nintzen hemen lanean eta 1994an, berriz, erakusleihoa apaintzen: Gaztañerren, Gabonetan, Aratusteetan eta jaietan egiten dut. Urtero ahalegintzen naiz aldatzen. Eta jendeak zela eskertzen duen! Mordoa! Hori bai, gehien gustatzen zaidana da umeak adi-adi begira ikustea. Azkenean gehiago kostatzen zait kentzea ipintzea baino!".





Herri-galdeketa geltokiari buruz

Errabaleko autobus-geltokiaren aldaketak "eragindako debatea ikusita", Udal-gobernuak erabaki du galdeketa egitea, herritarrek geltokia non jarri erabaki dezaten: Errabalen, Zubi Nagusian edo Baltegiatan.

Erdiguneko autobus-geltokiaren kokalekua erabakitzeko herri-galdeketa egingo du Udal-gobernuak 2019ko hasieran. Loteslea izango da, hau da, herritarrek bozka bidez aukeratzen duten proiektua gauzatuko da. Eta datozen hilabeteotan definituko dituzte galdeketa ingurukoak.

Geltokia Errabaetik aldatu nahi du Udal-gobernuak, han leku nahikorik ez dagoelako markesina, jarlekuak... ipintzeko. Udal-gobernuaren ustez Baltegieta da lekurik aproposena.

"Modurik demokratikoa"

Hori eta obren nondik norakoak azaltzeko batzarra egin zuten antzokian, baina, hartutako erabakiak eztabaida handia sortu zen. Hori ikusita, Udal-gobernuak galdeketa egitea erabaki du: "Debatea sortu dela ikusita, eta geltokia Gila zubian ipintzearen aldeko ahotsak entzunda, hausnarketa sakona egin dugu eta herri-galdeketa loteslea egitea erabaki dugu, herritarrek erabaki dezaten zein den geltokiarendako kokalekurik egokiena: Errabal, gaur egun dagoen lekua; Zubi Nagusia edo Baltegieta (...) Uste dugu soraluzetar mordoari zerbitzua ematen dion azpiegitura publiko baten kokalekua erabakitzeko modurik gardenena eta demokratikoa dela, eta

horregatik ahotsa eman nahi diegu soraluzetarrei".

Beraz, hiru aukeren abantailak eta desabantailak mahaiaren gainean ipiniko dituzte, herritarrek informazio guztia izan dezaten.

Lana "hobeto" egin

Oposizioko EHBildu koalizioak, berriz, uste du lana lehenagotik egin ahal zela "hobeto": "EAJk eta PSEk kiroldegiko aukerarekin itsututa pasa dute legegintzaldi guztia. EHBilduk zein herritar askok eskatu izan dugu beste aukera batzuk aztertzea, baina esan izan zaigu kiroldegikoa zela aukera bakarra. Batzarrean ere argi utzi zuten ez zutela inolako aldaketarik egingo. Zergatik proposatu dute bat-batean galdeketa? Hauteskundeak gertu daudela eta beldurtu egin dira? EHBildu ez da sekula herritarrei galdetzearen kontra jarriko, baina orain arte lana hobeto egin izan balitz, orain ez ginbateke egoera honetan egongo".

HERRITARREK ERABAKITZEN DUTENA EGINGO DUGU, GALDEKETA LOTESLEA IZANGO DELAKO

Obren hasiera

Errabaleko obren baitan aurreikusita zegoen autobus-geltokia lekuz aldatzea. Hori orain herri-galdeketa emaitzak baldintzatuko du. Gainerako lanak, aldiz, urtarrean hasiko dira, eta, gutxienez, bost hilabete iraungo dute.

Errabaleko 12. eta 29. atarien arteko zorua altxatuko dute, urentzako azpiegiturak berritzeko. Behin kalea tapatuta, plataforma bakarrean ipiniko dute berau, erdiguneari moduan, lehenasuna oinezkoek izan dezaten. Horrekin batera, zubiko piboteak errepidetik gertuago ipiniko dituzte, haien aurrean inork ez aparkatzeko. Eta Errabaleko 14. eta 16. zenbakiko etxeak bota egingo dituzte.

Estaziñoan bi noranzko

Hori egin bitartean, zirkulazioak bi noranzko izango ditu Estaziño kalean. Eta Santa Ana kaletik sartu ahal izango da herri barrura, baita gora egin Etxaburuetatik. Bemaforoen bitartez bideratuko dute guztia. Autobusei dagokienez, berriz, Estaziñoan izango dute geraleku nagusia. Bestalde, Errekaldeko geralekuak bere horretan segituko du, eta egokituko dute beste bat Ezozibidearen 14. zenbakiaren parean.

"Lasaitasuna igarri dut, batez ere"

ANDONI CALLESEK WIM HOF METODOA PRAKTIKATZEN DU

Andoni Calles Wim Hof metodoa praktikatzen ari da buru-belarri. Hiru fundamentutan oinarrituta dago berri samarra den metodo hori: arnasketak, hotzarekin kontaktua eta meditazioa (auto-kontrola). Berau praktikatzen daraman hilabete eskasean onura asko igarri dituela dio.

Zer da Wim Hofa?

Egunero arnasketak egin behar dira, hiper-bentilatze, gorputzari normalean baino oxigeno gehiago sartuta. Horrekin gorputza alkalinizatu egiten da, eta adrenalina eta pultsazioak igo egiten dira... Horrek guztiak estresa kentzen laguntzen du eta gorputzeko defentsak igo egiten ditu, barruko indarra handituz. Eta horrek guztiak gaixotasunei aurrea hartzen laguntzen du.

Eta hotzarekin harremana?

Urriaren 12tik ur hotzarekin dutxatzen naiz, eta ahal dudan guztietan bainuak hartzera joaten naiz, Mutxanera, Usakora... 5-6 minutu 7-8 graduan dagoen ur barruan egotea lortu dut. Meditazioa, berriz, egunero egiten dut esnatu eta berehala, 20 bat

"WIM-HOFEK BERE METODOA ZIENTZIARA ERAMATEA LORTU DU, ERAKUTSI DU POSIBLE DELA OSATZEA"



Andoni Calles Mutxanen.

minutuz. Gero, arnasketak egiten ditut eta ondoren dutxa hotza hartzen dut.

Igarri duzu aldaketaren bat?

Bai, batez ere, demaseko lasaitasuna nire buruan. Ideiak, dena, garbiago ikusten dut eta osasuntsuago igartzen dut nire burua.

Inguruan jende gehiago ere badabil Wim Hof metodoa praktikatzen, ala?

Herrian beste lagun bat ere badabil, bai. Asmoa da herrian taldea egin eta zapatu goizetan-edo elkartzea. Ikastaroetara joaten hastea ere nahi dut. Asmoa da sakontzea. Zeren, gainera, edozeinek egiteko moduko zerbait da: "arnasa hartzea doan da, edozeinek egin dezake eta bizitza ematen du", hori berori dio Wim Hofek adibidez. Nik neuk edozeini gomendatuko nioke Wim Hofa praktikatzea.

Gabonetako argiak Bizikaleren eskutik

Bizikalek kanpaina abiarazi du Gabonen atarian. Zapatuan Bizikale-azoka ipiniko dute 11 saltokiz eta txosnaz osatuta, 10:00etatik 14:30ak arte Plaza Zaharrean. Gainera, merkatarien eskutik, Gabonetako argiak ipiniko dituzte erdigunean: Kalebarrendik Gabolatseraino; Santa Anan Benito Altzari dendaraino; Etxaburuetan Arrano tabernaraino; zubian, udaletxe aurrean eta Mabel ile-apaindegia ondoan. 5.000-6.000 euro inbertituko dituzte eta hauxe esplikatu digu Ainhoak, Bizikaleko ordezkariak: "Giro apur bat emateko jarriko ditugu argiak. Gabonetan dekorazio gutxi egoten da, eta herria horren triste ez egoteko argitasuna ipiniko dugu, jendea pozik egoteko". Borobiltzeko, barrakak egongo dira Plaza Zaharrean, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra. Abenduaren 31ra arte Bizikaleko bonuekin ibiltzeko, eta gero prezio arrunta izango dute.

Gaztañereri buruzko batzarra

Aurtengo Gaztañerre Azokaren balorazioa egiteko batzarra deitu dute abenduaren 5erako, eguaztenerako. 19:00etan udaletxeko areto nagusian elkartu eta XXIII. Gaztañerre Azokan parte hartu dutenen ekarpenak jaso nahi ditu Soraluzeko Udaleko Landa Garapeneko Sailak, bereziki, datorren urteko azokaren antolaketari begira.



#MeToo proiektua azaroaren 25ean aurkeztu zuten Korner Moreako kideek. U.M.

Lekotasunak batzeko #MeToo proiektua

Soraluzen edozein motako indarkeria matxista jasan dutenen testigantzak batuko dituzte, Martxoaren 8an aurkezteko

#MeToo izenpean Korner Morea elkarte transfeministak orain hasi eta urtarrilaren 31ra arte indarkeria matxista jasan duten sorluzetarren lekukotasunak batu nahi ditu. Ekimen hori Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren bueltan aurkeztu zuten.

Esku-orriak eta sare-sozialak

Bi bide erabiliko dituzte testigantzak jasotzeko: esku-orriak eta sare-sozialak. Esku-orriei dagokienez, udaletxean ipini duten kutxa batean sartu behar dira. Sare-sozialei dagokienez, berriz, Whatsapp eta Facebook bidez inkesta bat bete ahal izango da. Hala azaldu ziguten Korne Morea elkartekoek ekimenaren aurkezpenean: “babes eta kontu guztiarekin, anonimotasunean geratzeko

jardungo dugu horrela, badakigulako testigantza asko gogorak izan daitezkeela (...). Asmoa morbotik ihes egin eta sufritzen dugun indarkeria guztia azaleratzea da”.

Elkarretaratzea

Jendetsua izan zen Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko egunean Plaza Berrian egindako elkarretaratzea. 100 herritar baino gehiagok parte hartu zuen. Besteak beste, bertan salatu zuten datu ofizialak eta ez ofizialak batuta, aurtan 89 emakume hil dituztela.

Industriaren aldeko apustua

Debarreneneko industria sektorea bultzatzeko eta nazioarteko merkatuan industria-sarearen lehiakortasuna hobetzeko marka sortu dute: Basque Precision Technology District (BPTD). Azaroaren 20an aurkeztu zuten Debegesan, Debarreneneko Garapen Agentziak Eibarren duen egoitzan. Bertan izan ziren Jaurilaritzako eta Diputazioko ordezkariak eta eskualdeko zortzi alkateak. Baita eskualdeko industria enpresetako eta erakundeetako eragile ugari ere. Bi ezaugarri nagusi ditu marka edo erreminta berriak: Debarrena eskualdea eta berorren izaera industrialia ditu abiapuntu eta Debarreneneko eragile publikoen zein pribatuen arteko elkarlanaren emaitza da, administrazioen zein enpresa industrialen arteko elkarlanarena, alegia.

Aulki berriak eta aire girotua

Udal Liburutegiko aulki guztiak aldatu egin ditu Soraluzeko Udalak, 3.000 euroko inbertsioa eginda. Guztira, 44 jarleku berri ipini dituzte, eta oraingo aulkiak lehengoak baino arinagoak, erosoagoak eta garbitzeko errazagoak dira. Bestalde, Udalak iragarri du uda aurretik liburutegian aire egokitua ipintzeko asmoa ere badutela.



Kerexetaegia hegokoa trikuharria, berreraiki ondoren. DEBEGESA



Indusketak egiten. DEBEGESA



Gezi-punta bat. DEBEGESA

Kerexetaegia berreraiki dute

Dolmenen ibilbidean aurrerapauso garrantzitsuak eman dituzte 2018an: Kerexetaegia hegokoa trikuharria berreraiki dute, jatorrizko itxura emanez eta 131.641,71 euroko partida eskuratu dute lanean segitzeko.

2012an Dolmenen ibilbidea berreskuratzeko eta balioan jartzeko proiektua abiarazi zutenetik, hasi dira azalera lanketa horren emaitzak; 2018an, bereziki, ikusgarri.

Adibide modura, urria-azaroan Kerexetaegia hegokoa trikuharria berreraiki dute, EHUko eta UNEDeko adituek gidatuta eta boluntarioek lagunduta.

Bi arlotan egin dituzte lanak: batetik, inguruko landaredia baliatuta babes-eraztuna ipini diote, eta landare kaltegarriak kendu. Eta bestetik, monumentuaren kamera berreraiki dute, haren jatorrizko materiala baliatuta, inguruan sakabanaturik aurkitutakoa.

Hirukurutzetako trikuharria

Bestalde, Hirukurutzetako trikuharriaren erdiko kraterrean indusketak egin dituzte, eta honako hauek aurkitu dituzte: aztertzerantz bidali duten gezi bat, suharrizko pieza bat, ikatza...

Horrez gain, trikuharri hori zelakoa zen erakusteko material grafikoa batu dute, ortoargazkiak egin eta 3D ereduak sortzeko. Hori guztia 2018ko urria-azaroan egin dute, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, topografo eta arkitekto banak eta 10 boluntariok.

Bestalde, Gizaburuagako indusketan azaldutako hezurak Karbono 14arekin aztertuta, emaitzek ondorioztatu dute uste baino 1.000 urte zaharragoak

direla aztertutakoa laginak; hala ere, Karbono 14a baino zehaztasun handiagoa duen metodo batez aztertzeke hezurrok beste laborategi batera bidali, datua ziurtatzeko.

Baliabide ekonomikoak ere gora

Orain arteko lanak eta etorkizunekoak egiteko baliabide ekonomikoak beharrezkoak dira. Zentzu horretan, aipagarria da Plazentzia-Elosua Estazio Megalitikora bideratzeko 2018an 131.641,71 euro lortu dituztela. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren bidez 110.641,72 euro bideratu dira, eta Soraluzeko, Elgoibarko eta Bergarako Udalen ekarpenaren kopurua handitu da (orain 7.000 eurora ipintzen du bakoitzak urtero). Bestalde, Soraluzeko Udalak dagoeneko 8 hektarea lur erosita ditu mendi-gainean.



Soraluzeko haurreskolan gaur egun dabilizan umeetako batzuk. SORALUZETIKO HAURRESKOLA

Haurreskola zabalik justu-justuan

Soraluzeko haurreskolako matrikulazioak behera egin du azken urteotan; jaoberri kopuruak, berriz, gora egin du.

Urtebeteko bost umek baino ez uten hasi ikasturtea Soraluzeko haurreskolan. Horrek esan nahi du Haurreskolen Partzuergoak justu-justu segituko duela

zerbitzua eskaintzen, hiru ume behar dira-eta, berau zabaltzeko.

Urteotan haurreskolako matrikulazioak beheranzko joera izan du; ez, ordea, udalerriko jaiotze-tasak. Udaleko datuen

arabera, urtarriletik gaur egunera arte Soraluzen 16 ume jaioberri gehiago daude, bertan jaiotakoak edo kanpotik etorritakoak.

Doako zerbitzua eta abantailak

Hori horrela, matrikulazio kopuru txikiaren atzetik beste arrazoi batzuk daudela uste dute Soraluzeko Haurreskolako arduradunek. Baliteke langabezia-tasa altua izanda, umeak etxean zaintzeko joera handitu izana. Edo haurreskolako prezioak jaitsi arren, bertarako laguntzak kendu izanak ere eragin izana... Arrazoiak arrazoi, Haurreskolen Partzuergoak iragarri du tarifa aldatu eta doako zerbitzua emango diela 18.000 euro baino diru-sarrera baxuagoa duten familiei. Eta iragarri du sarean ume bat baino gehiago duten familiek matrikula bakarra pagatu beharko dutela, ez bakoitzeko bat.

Soraluzeko haurreskolaren kasuan, izena eman daitezke harik eta 21 lekuen %75a bete arte. 07:30etik 17:00ak arteko zaintza eskaintzen du, 0-2 urte bitarteko umeei zuzenduta.

Sebas Etxaniz etxeratzeke eskea

Domekan elkartasun-argazkia atera zuten Karakaten Sebas Etxaniz preso elgoibartarra aska dezaten eskatzeko. Etxanizek azaroaren 27an bete zituen 75 urte eta preso dago Asturiaseko espetxean. Sarek salatu duenez, Etxaniz bigarren gradoan dagoen arren, ez dizkiote aplikatzen egoera horretan daudenei dagozkien onurak.



EGOITZ UNAMUNO

DANOBATGROUP^{ek} euskararekiko duen konpromisoari erantzunez herritar guztiei zuzendutako lehiaketa antolatu du

Azken urteetako ekimenari jarraituz aurten ere DANOBATGROUP^{ek} Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kooperatibak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa bat jarri du martxan **Euskara aldean, erabili lanean** lelopean.

*Gizartearekiko
konpromiso sendo horretan
kokatzen da euskararekiko
konpromisoa ere*

tzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda.

Gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere.

Lehiaketa modu digitalean antolatu da, eta parte hartzeko <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html> helbidean sartu behar da.

Galderei erantzuteko www.danobatgroup.com/eu webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren DANOBATGROUP^{eko} hiztegi teknikoan sartu, <http://hiztegia.danobatgroup.eus/eu> eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.


Abenduaren 3ra arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean bi bono zozketatuko dira asteburu bat pasatzeko bi lagunek Euskal Herriko landetxe batean.

DANOBATGROUP^{ek} konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asisten-

DANOBATGROUP^{ek} harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrek euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du eta horren adierazgarri kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak...

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez esan bezala DANOBATGROUP^{ek} lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke web gunea bisitatzera gonbidatuz eta euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez lehiaketa baten bidez.

Sartu ariketan, kontsultatu web gunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... osatu ariketa eta hartu parte bi lagunentzako asteburuko zozketan. Euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean...



DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUP^{en} EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi **gaueko egonaldia** bi lagunentzat

**euskara
aldean,
erabili
lanean**

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2018ko abenduak 3

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

Egun borobila

UBANE MADERA

ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Egun batzuk borobilak izaten dira. Halakoxea izan zen aurtengo Gaztañerre Azoka, borobila. Euria eta haize bolada handiak iragarrita egon arren, ohi baino epelago esnatu zen eguna, eta iluntzera arte goxo eutsi zion. Giroa ere halakoxea izan zuen, azokan, kalean eta bazkarietan. Eta antolaketa aldetik ere, ezuste barik, borobil gauzatu zen aurreikusitako guttia. Azokako barazki lehiaketari dagokienez, Lezarrik jaso zuen posturik onenaren saria, Arizagak bigarrena, Arteagak hirugarrena eta Goenetxetxok laugarrena. Bestalde, Salongo Basilisa Larrañaga Urresti eta Agirrebegiztegi baserriko Josefa Ansola Anduaga (hil berria) izan ziren aurtengo omenduak. Eta lehian izan ziren zazpi sagardoen artean, Oier Cerrejonenari eman zioten saria.





GUTUNAK

Inauterixetako Bertsio gabian parte hartzeko deia

BERTSIO GAUEKO TALDEA

Kaixo musikazale!

Inauterixak ondiok urrun geratzen jakuz, baina gutun honen bidez jakinarazi nahi dogu 2019xan be Bertsio gaua antolatuko dogula Gaztetzian.

Beraz, musikia gustatzen bajatzu eta zure gogoko talde hori bertsionatu nahi badozu, oin da garaixa taldia sortu eta burua ideiez lehertzeko. Animatu ondo pasatzera!

Jakinarazpena

SORALUZEKO KIROL BAZKUNA

Idatzi honen bitartez, Soraluzeke kirol bazkuna osatzen dugun zuzendaritzako kideok jakinarazi nahi dugu

gure ibilbideari amaiera ematera goazela.

Gure zikloaren amaierak bide eman nahi dio ilusioz eta lanerako gogoz etorriko den talde berri bati, zeinak S.K.B. norantza berri baterantz gidatuko duen.

Jarraipena eman nahi dioten guztiek aukera dute gurekin elkartzeko. Elkartegian aurkituko gaituzue (merkatu plaza gaineko lokalean), ostegunetan, 19:30etik 20:30era bitartean.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu bost urte hauetan laguntza eskaini diguzuen herritar guztioi.

Estaziñoko ziburua

A.I. HERRITARRA

Badira hilabete batzuk Estaziñoko parkean ziburu bat

falta dela. Parke horretan ume asko ibiltzen da eta uste dut udaletxeak lehenbait lehen konpondu beharko lukeela.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Gizon izateko ereduaz

“Maskulinitate ez normatiboak” izeneko tailerra egin zen zapatuan, gizon izateaz dagoen eredu berrikusteko helburuarekin. Zortzi gizonetarako parte hartu zuten bertan.



IBAI FRESNEO
EMAGIN ELKARTEA

Ikusi dugu nola patriarkatuak, kolonialismoak eta kapitalismoak indartzen duten bi generoen arteko bereizkeria eta eraikitzen duten gizonaren identitatea.

Gaia autokritikatik landu behar da eta hori ez da erraza.



ARITZ LASKURAIN
IKASTAROKO PARTAIDEA

Izena eman nuen parekidetasuna lortzeko bidean kontzientzia hartzeko eguneroko gauzen eta jarreraren inguruan. Ikastaroa dinamikoa, aberasgarria eta interesantea izan zen. Garbi dago ezberdinak izan arren, denok berdin balio dugula.

ZIR(R)IKA

P.G.



PUNTUA



GOTZON ELIZBURU

**Detale txikiak,
problema handiak**

A itortu behar dut pozez hartu nuela Herri Txiki, Infernu Handi saioa Soraluzera zetorrelako albisteak. Hasieratik saioaren jarraitzailea izan naiz. Igandea izanik, asteleheneroko aldapari atseginez heltzeko modu bat da niretzat saio hau. Komentatu izan dugu gainera herriko zenbait jarraitzailearen artean ederra zatekeela Soraluzera ere etortzea, “materia primarik” ez zaigu falta-eta. Barrez lehertu ginen Pagadi, Zuhaitz eta konpainiarekin. Eskerrik asko talde osoari.

Saioaren produkzioko kideei elkarrizketatu proposamenak luzatzerakoan, bereziki kontuan izan da emakumeen presentzia bermatzea. Proposamenetan emakumeak gehiago zirela esatera ausartuko nintzateke. Baina emaitzan argi ikusi zenez, bik baino ez zuten parte hartu. Kontua ez da errua produktorari egozte, ahalegina egin bait dute. Ohikoa da.

Euskadi Irratiako arduradun batek aipatu dit tertulietan emakumeak sartzeko duten zailtasuna. Baina errua ez da ezezkoa ematen duten emakumeena ere. Arrazoiak sakonagoak dira. Sistema patriarkalak sexu/genero bati eta besteari egozten dizkion rolak determinanteak dira norberekiko segurtasuna izan eta publikoaren aurrean patxadaz jardun ahal izateko. Bada zer aztertua.

**ANDONI CALLES**

IKASTAROKO PARTAIDEA

Oso potentea izan da. Gauza asko ikusi ditut aho zabalik laga nautenak eta niretzat belarrondokoak izan direnak. Motxila handia dakargu iraganetik. Oinarria maitasunetik bizitzea da eta pertsona guztiak diren moduan, errespetatzea.

**KOLDO AZKORBEBEITIA**

IKASTAROKO PARTAIDEA

Nahiz eta gure burua matxistatzen ez jo, jokabide batzuk oharkabearen pasatzen zaizkigu eta horrek identifikatzeko asmoz eman nuen izena tailerlean. Hausnartzeko eta beste jende batekin berba egiteko aukera eman dit. Asko dugu hobetzeko.

Zer aldatu da Euskaraldia hasi denetik?

Inkesta eta azterketa orokorrek zehaztuko dute hizkuntza-ohituretan izan diren aldaketek zenbateko neurria duten, baina, bitartean, Pil-pileanek jaso du herrian gertatu diren hizkuntz-ohitura aldaketan lagin bat. Ondorengo erreportajea, topaketan eta zuzenean jasotako hainbat testigantza batu ditugu.

Testua eta argazkiak:
Egoitz Unamuno.

Partaidetza datuak

580 partaide (%22)

Rolak

397 Ahobizi (%68)

183 Belarriprest (%32)

Generoa

353 Emakumezko (%61)

214 Gizonezko (%37)

10 Ez-binario (%2)

Adina

16-36: 160 (%28)

37-57: 280 (%48)

58+ : 140 (%24)

“

Nik lankidearekin hizkuntza aldatu dut; nik orain arte erdaraz egin diodan dendariari euskaraz egin diot eta ulertu dit; nik anbulategiko medikuari euskaraz egin diot eta euskaraz erantzun dit; guk urtetan buruan izan dugun hizkuntza-ohitura aldaketa gauzatu dugu gure bikote harremanean; gure koadrilan euskarazko elkarrizketak izaten hasi gara orain arte dena erdaraz egin dugunean,

nik elkarrizketa elebiduna izan dut Eibarko supermerkatuan, Bilboko komertzioetan euskaraz egin dut...”

Eguazteneko Kafia eta berbia topaketan jasotako testigantzak dira. Bertaratu ziren herritarrek zuzenean kontatu zituztenak, askotarikoak eta ugariak.

Denetariko esperientziak

Seigarren egunaren bueltan, zenbait soraluzetarri bizitzen diharduten esperientziaren gainean galdetu diegu. Bi motatako erantzunak izan dira nagusi: aldaketarik esperimintatu ez dutenenak eta aldaketak esperimintatu dituztenenak, batzuek gutxi, besteek asko. Azken hauen kasuan bizipenak oso indartsuak dira eta oso positiboak, jaso ditugun testigantzen arabera. Badira “armairutik irten” duten hiztunak edo “erdaldun etiketa” gainditzen hasi direnak, euren burua belarriprest edo euskaldun moduan aurkeztuta; eta badira ahaldunduta sentitu diren hiztunak, eta ordura arte erdaraz egin dieten pertsoneri euskaraz egiten hasi direnak, baita elkarrizketa elebidunak izatera heldu arte ere.



“Ilusioa”, “babesa”, “aurreratu izanaren sentsazioa” dira horien ahotan entzun ditugun berbak.

Euskalzaleen mugimendua indartu da

Euskaraldiaren eragina “oso modu nabarian” igerri dute herriko euskalzaleen mugimenduan. “Herritar boluntarioz osatutako 365 lan-taldeak oso ondo funtzionatu du eta herritarrei izen-emate kanpainan laguntzeko eskatu zaienean ere, dozenaka herritar hurreratu dira. Ekimeneko trebakuntza tailerretan, esaterako, ehun herritarrek parte hartu dute”. Gustura daude Arianne Unamuno (Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte) eta Mikel Leunda (Udaleko Euskara Zerbitzua) herritarrek izan duten parte hartzearekin. Etorkizunean, Euskaraldiaren lan-ildoari jarraipen sendoa ematea izango dute helburu. Partaideei “12. egunetik aurrera ere, 365 egunetan ahobizi eta belarriprest moduan jokatzen jarraitzeko” gonbita egingo diete..

Abenduaren 15ean, topaketa

Euskaraldian zehar bizitakoak elkarbanatzeko hitzordua jarri dute abenduaren 15erako: Batu Sutondora. “Goizeko 10:45ean batuko gara Antzokian eta hamaika egun hauetan, eta ondorengo beste hamaikatan izandako esperientziak kontatuko dizkiogu elkarri. Hitzordu garrantzitsua izango da, besteak beste, elkarrengandik ikasten eta ekimenak herrian izan duen eraginaren zenbatekoa neurtzen lagun dezakeelako”.

Eguazteneko Kafia eta berbia topaketa Plaza Barrixan.

**BADIRA "ARMAIRUTIK
IRTEN" DUTEN
HIZTUNAK ETA
AHALDUNDU DIRENAK**

"Nago umetxo bat zapata berriekin moduan!"

"Euskaraldian ondo, a tope! Nago umetxo bat zapata berriekin moduan. Jendeak dauka nirekin sorpresa, 'ah, nahi duzu euskaraz egitea zuri?'. Askok uste dute nik ez dakidala euskaraz edo ez dudala berba egiten.

Egia da nik erdaraz errazago egiten dudala, baina, orain, jolas honekin, jende askok euskaraz egiten dit eta horrek



Mari Jose Arcelus. BELARRIPREST.

ilusio handia egin dit. Ez dakidanean galdetzen dut zela esaten den edo traduktorean begiratzen dut.

Sentsazioa daukat oskoletik irten dudala, eta begira zelako tontokeria den, ezta? Baina niri balio izan dit soltatzeko. Jendea pozik dago eta ni ere bai. Gainera, uste dut hemendik aurrera euskaraz jarraituko dugula".

"Niri Euskaraldia oso ondo etorri zait, soltatzeko"

"Niri pertsona batzuk ez didate euskaraz berba egiten, beharbada, ez dakitelako nik euskaraz dakidala. Orain, jende askok berba egiten dit eta, gainera, esan didate hemendik aurrera euskaraz egingo didatela.

Beste batzueri, ahobizi txapa izan arren, ahaztu egin zaie eta nik esaten diet euskaraz egiteko. Nik ikusten badut



Raquel Criado. BELARRIPREST

badakiela, nik euskaraz egiten diot. Lagun artean ere hasi gara euskaraz egiten. Ohitura kontua da.

Niri oso ondo etorri zait Euskaraldia. Balio izan dit soltatzeko, ze beldurra izaten dut gaizki berba egiteko. Orain, ez badakit, galdetzen dut eta esaten didate. Konturatu naiz dendan nagoenetik asko hobetu dudala nire euskara".

"Nik paktua egina daukat lankide batekin"

"Nik lantokian (Soraluce) gehiago bizi izan dut herrian baino. Txapa ikusteak ematen du poz puntu bat. Askoren kasuan, txapa ipintzera atrebiteza aurrerapauso bat da.

Nik paktua egina daukat lankide batekin, nik euskaraz egiteko berari eta berak nahi duen moduan erantzuteko. Den dena ulertzen du eta esan nion nik euskaraz egingo niola,



Asier Laskurain. AHOBIZI.

baina aitortu behar dut niri nekeza egiten zaidala.

Aurreko batean ikusi nuen kirolari buruzko bideo batean, hasieran gorputza engainatu egin behar dela, eta gero, egin eta egin, ohitu egiten dela azkenean. Hizkuntza-ohiturak aldatzea ere antzeko zeezer da. Ez dakit energia guzti honek zer ekarriko duen, baina zeezer ekarriko du".

"Sumatu dut euskaraz gutxien dakitenek serioago hartu dutela"

Esperientzia aberasgarria izan da. Nik herriko lagun artean euskaraz egiten dut eta ez diot hainbesteko garrantzirik ematen, baina Donostian lagun Bilbotarrekin erdaraz egiteko joera handiagoa daukat. Egun hauetan eman diogu buelta bat horri. Asko berba egin dugu hizkuntzaren inguruan eta bakoitzak esplikatu du bere egoera:



Iosu Benito. AHOBIZI.

askok eskolarekin lotzen dutela euskara, etxean ez dutela egiten...

Ez dakit denean hala gertatu den, baina nik nire inguruan sumatu dut konpromiso handiagoa euskaraz gutxi egiten duen edo gutxi dakien jendearen aldetik. Iruditzen zait oso serio hartu dutela, garrantzi handia eman diotela eta hori kristona da!

"Lehen erdaraz egiten genuen gure artean eta orain euskaraz"

"Aspaldi hasi ginen eguerdiro batzen baina beti erdaraz egin izan dugu, orain dela hiru astera arte. Hasi ginen Euskaraldiaz berbetan, belarriprest izango ginela eta abar, eta esan genuen: 'aldatu beharko dugu ezta?' eta hasi ginen euskaraz.

Orain, mintzapraktika egiten dugu egunero. Sartu orduko esaten dugu, 'egun on, Pili!'



Bea, Inma eta Pili. BELARRIPREST.

eta 'egun on, Inma', eta ya barrezka hasten gara. Gure artean berdin berdin zaigu akatsak egitea, eta elkarrekin konfidantza hartzen dugu. Gainera, konturatzen gara gero eta errazago egiten dugula.

Jolas moduan hartu dugu, adostu dugu zer egin eta umorez beteta hasi gara. Horrela erraza da".

"Lankide batekin lehen aldiz euskaraz egiteko aukera izan dut"

"Ez dut izan aukera handirik aldaketak egiteko, egunotan lanetik etxera eta etxetik lanera ibili naiz eta. Hala ere, lantokian izan dut esperientzia bat. Lankide batek belarriprest moduan eman du izena eta lehenengo aldiz euskaraz egiteko aukera izan dut. Gainera, berarekin berba egin dut horretaz eta bere hizkuntza perfila ezagutzeko aukera izan



Javier Gabilondo. AHOBIZI.

dut. Berak ez du berba egiten, baina jakin dut familiako gainerako kideak ahobiziak direla eta euskaraz egiten diotela.

Nire Euskaraldia hasita daukat aurretik. Ni Eibartik etorri nintzen eta hemen errazagoa izan zait euskaraz egitea Eibarren baino. Han erdaraz ditudan ohiturak aldatzea zailagoa egiten zait".



Hamabostero Hankabero ekimenaren bigarren ibilaldi gidatua, asteon.

Ibilaldi gidatuak egiten hasi dira

Soraluze, Mugituz! topagunearen eskutik, hamabostean behin ibilaldi gidatuak egiten hasi dira, herritarrei zuzendutakoak, doan eta herrigunetik

Abenduaren 12an egingo dute Hamabostero Hankabero ibilaldi gidatuen hirugarren hitzordua. Txurruken, Sagar Erreka, Zeleta... erdigunetik kanpoko auzoetatik ibiliko dira oraingoan, eta eskailera bako ibilbidea egingo dute, 19:00etan Zubi Nagusitik abiatuta. "Halako auzoetan ez zara apenas ibiltzen, ez bazara bertan bizi. Hori ere bada Hamabostero Hankabero-ren helburua: normalean ibiltzen ez garen tokietatik ibiltzea. Bestela esanda, ez gaude ohituta herriko kaleak parke, kirol-gune... moduan erabiltzera. Erosketak egiteko, zerbait hartzeko... bakarrik direla dirudi. Badirudi bestela jendea ez dela kalera irtetzen korrika egitera, ibiltzera... lotsagatik-edo. Eta hori ere bada helburua: herriko kaleak beste era batera bizitzea


eta ospatzea" esplikatu du Jokin Martinezek, Hamabostero Hankabero ekimenaren antolatzaileetako batek.

Luque eta Martin gidari lanetan

Azaroaren 14an izan zuen estreinaldia ekimen horrek. Soraluze, Mugituz!-en eskutik, asmoa da aukera eskaintzea ibiltzea eta jendearekin harremanak izatea gustuko duen edozeini, eguaztenero, hamabostean behin taldean 45-60 bat minutuko ibilaldi gidatua egiteko, 19:00etan Zubi Nagusitik abiatuta. Jose Luque eta Itsaso Martin dabilta gidari lanak egiten, petoak jantzita. Antolatzaileek, gainera, azpimarratu dute berdin dela ibilaldia egitera bertaratzen den jende kopurua. Bakarra azalduta ere ibilaldia berdin-berdin egingo dutela.

Valentziara, 4. maratoia egitera

Etzi, domeka, egingo du Jokin Muñozek bere bizitzako laugarren maratoia, Valentzian. 08:30ean hasiko da, eta 23.000 korrikalariren artean lehiatuko da. Eguenean abiatu zen, familiarekin eta lagunekin, "ondo prestatuta" eta bere marka hobetzeko. Behobia-Donostian, adibidez, 42. egin zuen 26.000 korrikalari pasaren artean.



Jokin Muñoz Behobian.

Indartsu dabil Sora azken boladan

Azaroko partidu bat bera ere galdu barik, Sorako gorengo mailako taldeak sailkapenean gora egitea lortu du nabarmen eta 11. lekuan kokatu da taulan. Aipagarria da Sorako futbol-eskolak indartsu abiatu duela ikasturtea, 55 neska-mutikorekin (hiru neska). Azken urteotan baino gehiago izanda, bi talde sortu behar izan dituzte. Azaroan hasi dira eskolakoak partiduak jokatzeko.



Aitor Atxotegi eta Manex Balerdi garaikurrekin, Idiazabalen.

Gipuzkoako txapela herrira ekarri dute

Soraluzeko Pilota Elkarteko ordezkariak datorren hilabetean konfirmatuko diete Euskal Ligan jokatzeko aukera emango dieten

Gipuzkoako Eskuz Binakako txapela Soraluzera ekarri zuten Aitor Atxotegi eta Manex Balerdi pilotariak joan den azaroaren 10ean, Idiazabalen jokatu zuten ordubeteko final

zirrargarria 22-20 irabazi ondoren.

Txapelaz aparte, gainera, finalera iritsi izanak Soraluzeko Pilota Elkarteko bikoteari txartela eman dio datorren

urtean Ohorezko Mailan jokatzeko.

Eta hori gutxi ez, eta Gipuzkoako txapeldun izateak Euskal Ligan jokatzeko bidea ere zabaltzen dio bikoteari. Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako bikote onenek jokatu dute liga horretan, hain justu. "Asmoa dugu parte hartzeko, nahiko genuke behintzat. Finala irabazita pentsatzen dut aukera emango digutela parte hartzeko. Baina hori abenduaren konfirmatuko dute", jakinarazi du Aitor Atxotegik.

Orain, eskuz banakakoan

Bestalde, haren bikote Manex Balerdi joan den asteaz geroztik Eskuz Banako Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen hasi da, Soraluzeko elkarteko ordezkari modura. Lehen partidua 22-3 irabazita, bihar zapatua, du bigarren hitzordua, Tolosan. Aitor Atxotegiri dagokionez, berriz, hark lesionatuta bukatu zuen eskuz binakako txapelketa eta atsedean hartzea erabaki du oraingoan, ondo osatzeko.


Profesional mailako bigarren borrokaldia egingo du Rodriguezek

Eloisa Rodriguez madrildarra aurkari duela, boxeolari moduan profesional mailan jokatu duen bigarren borrokaldirako hitzordua du Ixa Rodriguez soraluzetarrak bihar, zapatua, Getxoko Andra Mari kiroldegian, 19:30ean hasita.

Soraluzeko borrokaldian irabazita, oraingoan errebantxa jokatu dio madrildarrari. Borrokaldia irabaziz gero,

profesional modura Espainiako txapelketarako puntuak eskuratuko lituzke soraluzetarrak.

Neskabox taldeko boxeolaria "ondo entrenatuta" dagoela azpimarratu du haren entrenatzaile Josu Lopategik. Dagokion pisutik (50 kilo) gertu dago, eta beraz "doitza" besterik ez zaiola falta adierazi du.



Ixa Rodriguez boxeolaria.

'Plaentxia Kantuan' ekimena sortu dute

Plaentxia Kantuan ekimena sortu dute Itxaropenan. Astelehenero entsaiatu eta tarteka elkarrekin kalera ateratzeko asmoa dute.

Hogeitabost pertsona inguru batu ziren astelehenean Itxaropenako saio aretoan, kanturako gogoz. Begoñak espero zituenak baino dezentez gehiago ziren: "nik pentsatzen nuen 5-6 lagun batuko ginela, baina jende mordo bat da".

Eibarko esperientzia eskolatik ekarri du ideia. Izan ere, Eibarren antzeko kantu-talde bat sortu zuten orain dela urte batzuk, eta Begoñak hura ezagututa pentsatu zuen



Begoña eta Pablo lehen saioa gidatzen.

herrian antzeko talde bat martxan jartzea.

Musikari bat behar eta Pablo Arruabarrena soinu-jolea gonbidatu zuen. Honek laster eman zion baiezkua eta astelehenean zuzendu zuzendu zuten lehenengo saioa.

Euskaraz eta gazteleraz

Euskarazko zein gaztelerazko kantuak landuko dituzte: Agur Xiberua, Boga-boga, Habanera, A la orilla de un Palmar, De colores... Eta, horiekin eta Soraluzeko kantuekin, liburuxka mardul bat kaleratu nahi dute laster. Kalera ere aterako, "pintxopotean edo", eta edozeinek izango du parte hartzeko aukera.

Hurrengo entsaioa: datorren astelehenean, arratsaldeko 18:00etan.



BBK JAZZ

Errabal Jazz saritu dute BBK Jazz Sarietan

Azaroaren 3an, IX. BBK Jazz Sariak banatu zituzten Bilbon eta Soraluzeko Errabal Jazz zigilua saritu zuten bertan, azken hamasei urteotan jazz

musika argitaratzen egindako "ibilbide emankorragatik".

Joxe Felix Azkaratek jazz sortzaileei eskaini zien saria bere argur hitzaldian.

Nobedadeak Durangora

Errabal jazz eta Gaztelupeko Hotsak zigiluek 18 nobedade aurkeztuko dituzte abenduaren 5etik 9ra egingo den 53. Durangoko Azokan.

Jazzari dagokionez, Chris Kase Quartet, Broken Brothers Brass Band, Javier López Jaso & Marcelo Escrich Quartet, Jon Urrutia Trio, De Diego Brothers eta beste talde batzuen azken lanak eroango dituzte.

Gaztelupeko Hotsak-en zigilupean, berriz: 2 Princeses Barbudes, Lurpekariak, Hibai, Lokatzetan Play (binilo saila) (Txuma Murugarren, Jon Gurrutxaga, Joseba Tapia, Capsula), Family Folks, Markos Unzeta & Esku Hutsik, Markos Untzetaren lanak.



Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU NISSAN X-TRAIL BAT
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Gipuzkoa Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

Mirari baten historia

188 URTE DITUEN AZPIEGITURA HIDRAULIKOA MARTXAN DA ORAINDIK

EGOITZ UNAMUNO

Plaza Barriko iturriaren nondik norakoen berri eman zuen Javier Elorzak eguaztenean eskaini zuen hitzaldian.

“Miraria da orain dela 188 urte eraikitako azpiegiturak oraindik ere funtzionatzea”, adierazi zuen Elorzak miresmenez. Aurrez, xehetasun handiz azaldu zituen garai hartan ura sortzen den lekutik –Ipinarrietatik-, Plaza Barrira (Zubira eta Gabolatsera ere bai) ura ekartzeko erabili zuten sistemaren ezaugarriak eta halako iturria eraikitzeko izan ziren zergatiak.

Iturriaren beharra

XIX. mendearen hasiera aldera, herrian bi iturri nagusi zeuden: Errekaldekoa eta Aranekoa. Itxuraz, ez ziren behar bezain emankorrak eta, gainera, alde zaharrea ez zegoen iturririk. Gabezia horiei aurre egin nahian, Udalak 1830ean erabaki zuen Plaza Barriko iturria egitea, alde banatara animalien edaleku handiak eraikita. Izan ere, garai hartan, Erregetxe berria eraiki berri, animalien joan etorria handia zen.

Indiano aberatsaren ekimena

Garai hartan, Ambrosio Aldasoro eta Lasalde zen herriko alkate; gaztetan Monterreyra (Mexiko) joandako herritarra, han alkatearen alabarekin ezkondu eta dirutza handia eginda bueltatu zena.



Plaza Barriko iturria.

Agiriek diotenez, beronen ekimenez abiatu zen proiektua eta dirua aurreratu ere egin zuen lanak burutzeko. diseinatu eta zuzentzeko lanak, berriz, Bergarako Mariano Jose Laskurain arkitektoari enkargatu zizkioten.



Elorza, zeramikazko hodia eskuetan.

Zeramikazko hodiak

Azpiegituraren konplexutasuna eta kalitatea goraiatu zituen Elorzak, besteak beste, lurrazpiko hoditeria guztia zeramikazko hodiekin egin dagoelako, eta, harlanduzko akueduktuaren eta ur-biltegien perfekzio-maila “miresgarria” delako.

Horren berri eskuorrian jaso duten arren, laster bisita-gidatua antolatuko dute ibilbide guztia herritarrei ezagutarazteko.

Info+: Sorapedia.eus

ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure genakoz hartu klinika, punta puntako teknologietan lan egiten dugua. Cad-Cam sistema berriaketa erabiltzen dugua.

Elizburu, 3 beheha
SORALUCE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera:
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

KLB6

Kalebarren 6
943 67 20 28
kalebarren-6@nabon.com
facebook.com/kalebarren6



Alpa Jarna
INLAND
MADISON BOOTCH
VERO MODA

SOLID
NEW BALANCE

Txoko



Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitarlekoak, ogitarlekoak, radiak, pizzaak, gosaria...
Entzupak egiten dira
Tel: 943 75 17 88

Jatearen plazarrera, bertatik bertara

Batzoki



eguneko menua
astiberrazatza
kama eta radiak


ogitarlekoak eta
hamburgerak
entzupak berriak

familia eta
lagun arteko
beharrik

Erreserba: 943 75 20 35

TATTOO INIBIRU

ESTUDIO ARTISTIKOA



Haitzajaleto 16, SORALUCE (Albizturko) Tel: 947725403 www.ajibretatattoo.com

AURREZTU ENERGIA



Berota ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenerdik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbata: 08:30-13:30
Igandea: 08:30-14:30



Gosariak, ogia, premia, pastilak, bereziak.
Etxera eramazko zerbitzua

Tel: 943 75 24 43

Kontulan

abokatuak

ABOKATUAK

Errenta aitortpenak - Administrazioa lanak
Trafikazio buroirantz - Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/leohak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eta. 20590 Sorluze
Tel: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

IZZUGUIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentza - Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbata eta igandea:
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



amurta dekoratiboa industriala

Tel: 943 75 13 24 Mug: 652 77 70 30

Etxabe Harategia



- Etxera eramaten da
- Entzupak hartzen dira
- Sorluzeako baserrietako produktua
- Etxera irizpaki eta txistorrak

Etxaburuta 5
Tel: 943 75 22 28

*sutarako egurra, salgai
pago-egurra, haritz-egurra...*

SUMA
basolarak

Mug: 635 71 34 08



Euskalzaletasunaren alde:



16 urte paperak lortu ezinda

FRANK QUABENAK AURRE-KONTRATUA BEHAR DU BERE EGOERA ERREGULATZEKO

UBANE MADERA

ARGAZKIAK: U.M. ETA FRANK QUABENA

Ghanako Errepublikakoa da Frank Quabena Owusu. Orain dela 39 urteko martitzen batean jaio zen. Hain justu, horixe berori adierazten du Quabena abizenak Ashanti hizkuntzan; "Kofi Annanek, adibidez, barikuan jaiotakoa esan nahi du", halaxe esplikatu du Quabena herrikide ezagunaren adibidea ipiniz. Owusu, berriz, familiaren izena dela du.

Kooperatibaren kanpoko aldean egoten da ia egunero ghanarra, goizean goizetik ate ondoan, soraluzetarren laguntasun eske, eta dagoeneko ia herri guztiak ezagutzen du. Eta jakina, berak ere ia herri guztia ezagutzen du; bai behintzat, goizero kalean ibiltzen diren herrikideak. Zera azpimarratu du Quabena: "Soraluzen jende ona dago".

Debatik Soraluzera

Frank Quabena Owusuk urtebete pasa darama Soraluzera etortzen.

Bizi, baina, Deban bizi da, bikotearekin (Gineakoa), eta hiru seme-alabarekin, 8, 6 eta 2 urtekoak. Hauxe konttau digu berari buruz: "Bikotekidea Europan aurkitu nuen, Frantzian. Holandan nengoela bera Frantzian bizi zen. Gero denok etorri ginen hona. Lehenengo Durangon bizi izan



Ghanako jantziarekin. FRANK QUABENA

nintzen, gero Usurbilen, gero Errenterian, gero Eibarren eta azkenik, Deban".

Jaioterrian, berriz, Acran, ama eta zortzi anaia-arreba geratu zaizkio (aita hilda dauka).

16 urte jaioterritik kanpo

Hain justu, 2010-2011 urte bitartean iritsi zen Frank Quabena Euskal Herrira.

Harrezkero ezagutzen zuen Europa, eta baita Europako iparraldeak eskaintzen zion bizimodua ere. Izan ere, Afrikatik Europarako bidaia

"GHANAKO PAPERAK LORTZEKO DIRUA BEHAR DUT ETA LANA LORTZEKO PAPERAK BEHAR DITUT..."

orain dela 16 urte hasi zuen, 2002. urtean:

"Nire bidaia honakoa izan zen: Ghana-Burkina Faso-Mali-Senegal-Mali-Aljeria eta Maroko. Izan ere, Senegaldik ezin nuen Marokora zuzenean joan, eta Malira bueltatu behar izan nintzen. Handik Aljerian zehar ibili nintzen Marokora iristeko. Senegalen (Dakarren) hiru hilabete egin behar izan nituen zai, Marokon, berriz, bi aste. Guztira, ia bost hilabete behar izan nituen Marokora iristeko. Pateran etorri nintzen, beste 22 lagunekin. Ondoren, Marokotik Fuerteventurara joan nintzen, 2002a zen. Eta Fuerteventuratik Holandara iritsi nintzen, azkenean. Han lan apur bat egitea lortu nuen, baina, ezin nuen paperik lortu. Eta hona etorri nintzen, hemen errazagoa delako paperak lortzea".

Aurre-kontratua

Oraindik orain, baina, ez du helburu hori lortu.

Zirkulu batean sartuta irten ezinda dabil Frank Quabena: dirua behar du paperak lortzeko, baina ez du lanik. Eta lan egin nahi du, are gehiago, beharrezkoa du lan egitea. Baina lan egin ahal izateko ez du paperik, argi azaldu digu bere egoera: "Urtebeteko aurre-kontratu bat behar dut. Baina horretarako paperak eskatzen dizkidate. Eta nire egoera erregulatzeko



Frank Quabena Kalebarrenen. UBANE MADERA

beharrezko ditudan Ghanako paperak lortzeko, berriz, dirua behar dut. Eta ez dut lanik..."

Hangoen laguntasun bakarra

Quabenak azpimarratu du gertu dagoela "edozer gauzatan" lan egiteko. Ikasketaz, baina, mekanikaria da, Acran eskola amaitu ostean, mekanikari ikasketak egin zituen-eta 17 urterekin. Ikasketak amaitzean, aldiz, ez zuen dirurik lortu mekanikari negozioa zabaltzeko, eta horrexegatik erabaki zuen Europarako bidaiari ekitea, beste milaka etorkinek egin eta egiten duten modura.

Izan ere, behar pertsonalez aparte, Ghanan geratu zitaion familiaren laguntasun bakarra bera da gaur egun: "Dirua bidaltzen diet zerbait dudan guztietan. Gaur egun duten

laguntza bakarra ni naiz. Adibidez, orain dirua bidaltzen nabil nire arreetako batek ikasi dezan".

Zeren, jakina, beste milaka etorkinek pentsatzen duten moduan, "han (Afrikan) uste da hona iritsi eta dirua eta lana berehala lortuko direla, eta ez da horrela", adierazi du Quabenak.

Seme-alabengatik

Gauzak horrela, gaur-gaurkoz, bikotekideari esker bizi da Euskal Herrian. Frankek zera

GHANAN GERATU ZIREN BERE AMAK ETA ZORTZI ANAI-ARREBEK DUTEN LAGUNTASUN BAKARRA FRANK QUABENA DA

azaldu digu: "Nire bikotea lanean dabil eta alokairuko etxe batean bizi gara bostok. Baina nik zuzenean ez du inolako laguntzarik jasotzen".

Horixe da, hain zuzen, eskean ibiltzearen arrazoia; eta horretara Soraluzera etortzen da bere seme-alabengatik. Argi azaldu digu erabakiaren arrazoia: "Eibarren jende asko dabil eskean. Eta Deban ez dut horrela ibiltzerik nahi, ze ez dut nahi nire seme-alabek ni eskean ikusterik edo euren lagunek niri buruz haiei horri buruz berba egiterik".

Saiatu eta saiatu

Egoera zaila du Quabenak, eta baita irtenbidea ere.

Iza ere, ezin da Ghanara bueltatu; ez du hango familia ikusi 16 urtean. "Telefonoz egiten dugu berba", esan du. Izan ere, paperik ez duenez, Ghanara joaten bada, ondoren ezin izango litzateke legez bueltatu Europara.

Gainera, orain hemen ere familia dauka. Eta horri eutsi egin nahi dio.

Hala ere, gauza bat argi dauka: "Paperak lortu eta berehala bisitan joango naiz hara". Eta saiatzeari ez dio sekula utziko. Horren adibide da hemen ere ikasten hasita dagoela, besteak beste, gaztelania. Urtebetean Quabenak erakutsi du gertu dagoela euria, hotza, beroa... pasatzeko bere ametsari eusteko.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Miren Osinaga
Abenduaren 11n, 11 urte. Zorionak Mirenxu! Ondo ospatu eguna. Patxo bat etxekuen partez



Ivan Ayora
Alles Gute zum Geburtstag! Ze ondo zu berriz be bueltan eukitzia! Edarki ospatuko dogu seguro. Muxu potolo!



Iñigo Ruiz
Azaroaren 23an, 22 urte. Zorionak Batzokiko kamareroari! Egun politta pasatu eta patxo bat lagun eta familiaren partez. Maitte zaittugu!!



Jone Urresti
Abenduaren 9an, 8 urte. Zorionak printzesa! Oso ondo ospatu eguna. Muxuak etxekuen partez.

JAIOBERRIAK



Alai Martinez Fariñas
Urriaren 31an jaio zen.



Lander Ruiz de Luzuriaga Lamas
Abenduaren 13an, 14 urte. Zorionak guapooo! Oso ondo pasatu zure egunean.



Manex Azkorbebeitia Unamuno
Abenduaren 9an, 3 urte! Zorionak txapeldun! Segi beti bezain alai! Patxo potolo bat etxeko danen partez!



Ainara Rosario Moreno
Azaroaren 10ean, 3 urte. Zorionak! Etxekoen partez!



Jon Amutxastegi
Abenduaren 18an, 8 urte. Zorionak eta muxu haundi bat denon partez!

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Maria Aranzazu Uriarte Argarate
Antonia Juan Hernandez
Maria Pilar Oruesagasti Larrea
Javier Gordejuela Irazu
Felisa Martinez Izquierdo

Jaiotakoak

Irai Perez Blanco
Anne Arrieta Montaña
Alaia Martinez Fariñas
Haizea Esteban Hernandez

ESKELAK

I. URTEURRENA

Guillermo Alberdi Aramendi



2017ko abenduaren 11an hil zen

Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeruan.
Beti gure bihotzean.


Etxekoak

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

605 706 086


(deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.eus



EUSKARALDIA
ekimeneko bizipenak
partekatzeko
eta baloratzeko

Batu Sutondora
abendua 15
10:45-12:45, Herriko Antzokian



SAIO IREKIA
BIODANTZA
dohainik

2018 Abendua 20
Herri Antzokian
18:00 - 20:00
Soraluze
emailea Ainhitze
Elizburu Etxeberria
(S.R.T. erraztailea)
izen ematea+info
665 23 96 65



dia **R**

Abendua 1, larunbata
Soraluzeko Gaztetxean 18:30 etan



DOKUMENTALA (30min)
Solasaldia egileekin
Marta Jorba Fariol Moya

Katalunian autobiderminazio prozesuaren inguruko estaldorik,
2017ko urriaren 1eko erreferendumiko biltzarrean bidez
El proceso de autodeterminación catalán a debate a partir
de testimonios del referéndum del 1 de octubre de 2017



ANTZERKIA: IZOZTATUKO HAIZEA BEZALA (TANTTAKA)



ABENDUAK 7
20:30tan
Coliseo Antzokian

Ekoizpen honekin Tanttakak abusuari buruzko trilogia ixten du. Kasu honetan, farmazia batean ematen den tiroketak mundaak txarto tratatutako hiru gazteren topaketa ahalbidetzen du. Uste duguna baina ohikoagoa den errealitate bat kontatzeko thriller bat...

GIPUZKOAN GAZTE-TOUR: PARRAPÁS + BAGO!AZ + TWIN MELODY + DJ TXURRU



ABENDUAK 15
18:00tan
Astelena Frontoian

Egitaraua

18:00: Parrapas taldea
19:00: Bago!az-eko partaideak
20:00: Twin Melody
21:00: DJ Txurru

5€

ZINE EMANALDIK COLISEOAN



ABENDU
OSOAN ZEHAR
Coliseo Antzokian

- La sociedad literaria y el pastel piel de patata
- Superlópez
- El Grinch
- El fotógrafo de Mauthausen
- Ralph rompe internet
... ETA GEHIAGO

DESKONTUAK
Coliseoaren laguntzat

30%